



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 96. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Urtarrila



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **Gipuzkoako eta Iparraldeko turismo-sektoreko enpresen arteko mugaz gaindiko lehen topaketa egin dute**

Gipuzkoako eta Iparraldeko turismo-sektoreko enpresen arteko mugaz gaindiko lehen B2B topaketa egin zuten urtarrilaren 13an Donostian. 69 enpresak hartu zuen parte Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua Fundazioaren egoitzan egindako ekitaldian. Topaketa baliagarria izan zen bi lurraldeen arteko mugaz gaindiko lankidetzaz hasteko 2016. urtean Donostia Europako kultur hiriburua izango dela aprobetxatuta.

Iparraldeko Turismo Klusterrak, GOazenek; Mugaz Gaindiko Merkataritza Ganberak, BIHARTEANek (bertako kideak dira Gipuzkoako Bazkundera eta Baiona-Iparraldeko Merkataritza Ganbera) eta Donostiako Bulego Estrategikoak antolatutako enpresa-topaketak 3 gai nagusi landu zituen: bi lurraldeen arteko bisitarien joan-etorriak errazteko garraio-eskaintzaren ikusgarritasuna eta estaldura, kultur programazioaren informazioa eta komertzializazioa, eta lotutako turismo arloko zerbitzuak eta produktuak, eta bi lurraldeen arteko kultura eta turismo arloko eskaintzaren elkarrekikotasuna bermatzeko beharrezko antolaketa.

2015eko maiatzean sektoreak beste topaketa bat egitea aurrez ikusi du.

*Informazio gehiago:*

<http://www.donostiasansebastian2016.eu>

<http://www.bihartean.com>



### > Abian da mugaz gaindiko enpresa-ekimen onenei zuzendutako eKop Sarien hurrengo deialdia

Baiona-Donostia Euskal Hiria garatzeko Mugaz Gaindiko Agentziak, BIHARTEANekin elkarlanean (Mugaz Gaindiko Merkataritza Ganbera), eKop sarien bigarren edizioa argitaratu du. Sariak mugaz gaindiko lankidetzan Eurohiriko eragile dinamikoenak aitortzen dituzte.

Aurkeztutako hautagaitzek, derrigor, mugaz gaindiko lankidetzako ekimenak bildu, Euskal Eurohiriaren alde esku hartu eta proiektuko bazkideetako batek, gutxienez, egoitza soziala Euskal Eurohirian izan beharko du.

eKop saria emateko erabilitako irizpideen artean, arreta berezia jartzen da mugaz gaindiko lankidetzan, eredugarritasunean, proiektuak Eurohiriko lurraldean duen inpaktu ekonomikoan, eta hautatutako pertsonak eta taldeek lortutako emaitzetan.

Sarietarako hautagai gisa parte har dezake edozein erakunde publikok (unibertsitateak, teknologia-zentroak...) edo erakunde pribatuk haien jarduerak eta konpromisoak mugaz gaindiko esparruaren garapenerako, aitorpenerako edo balorizaziorako benetako inpaktua sortzen badute.

Hautagaitzak aurkezteko azken eguna 2015eko otsailaren 27a izango da.

*Informazio gehiago:*

[http://www.eurohiria.org/index.php?id=105&tx\\_ttnews\[tt\\_news\]=417&cHash=1ed80d273888d2a9488704d23e4c9d13](http://www.eurohiria.org/index.php?id=105&tx_ttnews[tt_news]=417&cHash=1ed80d273888d2a9488704d23e4c9d13)



### > **EUROBASKEk Europa Euskadiko gazteengana gerturatzea xede duten CIVIS eta PRIMUS sarien edizio berrirako deialdia egin du**

2004an, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, Eurobaskek, Francisco Javier de Landaburu CIVIS Saria sortu zuen Europa Euskadiko gazteriara eta hezkuntza-sektorerara gerturatzeko asmoz. Aurten, bigarren mailako hezkuntzako ikasleei zuzendutako sarien hamabigarren edizioa egingo da. “Krisiaren aurrean ikasgeletatik bideratutako elkartasuneko ekimenak. 2015: Garapenaren Europako Urtea” gaiaren inguruko lan onenak Bruselara bidaiara eta Nestor Basterretxearen eskultura jasoko dituzte sari gisa. CIVIS sarietara lanak aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 15ean amaituko da.

Bestalde, eta 2007. urtetik, Eurobaskek PRIMUS saria ere deitzen du. Horren helburua belaunaldi gazteen artean Europar Batasuna ezagutzeko ilusioa piztea da. PRIMUS 2015 deialdia lehen mailako hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago eta 2015eko maiatzaren 8ra arteko epea izango dute gai honen inguruko marrazkia aurkezteko: nola ikusten duten Europa, bakearen eta askatasunaren esparrua.

*Informazio gehiago:*

<http://www.eurobask.org/eu/html/index.shtml>



## KOHESIO-POLITIKA

### > EGEFen Kudeaketako Agintaritzaren Urteroko Topaketa Europako Batzordearekin eta 2007-2013 aldiaren itxierari buruzko mintegia

Urtarrilaren 19an egin zuten Madrilen, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren egoitzan, Espainiako EGEFen Kudeaketako Agintaritza eta europako Batzordearen arteko urteroko topaketa.

Programa Operatiboen gauzatze mailaren egoera orokorra aurkeztu ondoren, aurretiazko urteko txostenetan detektatutako arazo nagusiak identifikatu, eta proiektu nagusien egungo egoera eta finantza-tresnen erabilera aurkeztu zuten. Era berean, 2014-2020 programazio-aldi berriaren inguruko alderdiak landu zituzten: emaitzaren eta produktibitatearen adierazleen azterketa edo jarraipen-batzordeen funtzionamendua hobetzeko modu posibleak, adibidez.

Hurrengo egunean, urtarrilaren 20an, 2007-2013 aldiko Egitura Funtzen laguntzen itxierako mintegia egin zuten. Egun hartan landutako gaien artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: itxierako dokumentuak (hautagarritasuna), proiektu nagusiak (faseen arabera proiektuak, proiektu ez-operatiboak, finantza-tresnetarako arau espezifikoak), Estatuko laguntzak eta finantza-kontrolaren eta auditoriaren inguruko alderdiak (irregularitasunak, deskonpromisoak, lege edo administrazio mailako prozesuak direla eta baliogabetutako eragiketak, malgutetasuna), besteak beste.

Topaketan Gipuzkoan Egitura Funtzak kudeatzen dituen erakundea den Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat izan zen.

*Informazio gehiago:*

<http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/DGFC/es-ES/Paginas/inicio.aspx>



### > **Europako Batzordeak Espainiarekin akordioa sinatu du PYME (ETE) ekimena garatzeko**

Inbertsioen Europako Bankuak eta Inbertsioen Europako Funtzak akordioa sinatu dute Espainiarekin eta Europako Batzordearekin Espainian PYME ekimena abian jartzeko. Eskualdeko Garapeneko Europako Funtzaren (EGEF) bidez bultzatutako finantza-tresna aitzindaria den ekimen honen helburua enpresa txiki eta ertainen arteko finantzaketa eta kreditua mobilizatzea da.

PYME ekimenaren indargune eta berrikuntza nagusietako bat bere efektu biderkatzailea da. Kreditua metodo berritzailearen bidez mobilizatzen da ETE-*ei* zuzenduta. Horren arabera, Inbertsioen Europako Batzordeak kredituak emateak eragin ohi duen arriskuaren zati bat bermatzen du. Horretarako, Estatuak eta komunitate autonomoek EGEF esleipenen zati bat Europako Bankura bideratu dute. Horri esker, finantza-erakundeek likidezia-eskaintza zabaldu eta merka dezakete enpresa-proiektuetarako. Inbertsioen Europako Bankuak aurrez ikusitakoaren arabera, ekimenak efektu biderkatzailea izango du eta, gutxienez, EGEF funtsekin egindako inbertsioa laukoiztuko du.

Euskadin, EGEF Euskadi Programa Operatiboaren proposamenak PYME ekimenerako 10 milioi euroko zenbatekoa bideratuko du. Aurrekontu honi Euskadiri dagokion Estatu mailako ekarpenaren efektu biderkatzailea gehitu beharko zai. Zenbatekoak Euskadiko enpresei bideratutako finantzaketa errazteko balioko du.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-15-3682\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-15-3682_es.htm)



### > 2015a, Garapeneko Europako Urtea

“Gure mundua, gure duintasuna, gure etorkizuna” lelopean hasi da urtarrilaren 1ean Garapenaren Europako Urtea. Horren helburua nazioarteko laguntza-politikaren garrantzia eta Europar Batasunak eta estatuek betetzen duten oinarrizko rola azpimarratzea da.

Garapenaren Europako Urtearen helburuak hiru dira:

- Europar Batasunak eta kide diren estatuek egindako garapenerako laguntzari buruzko informazioa ematea herritarrei, mundu mailako eragile gisa lortutako emaitzak eta etorkizuneko aurreikuspenak azpimarratuta.
- Europako herritarren inplikazioa, pentsamendu kritikoa eta interes aktiboa bultzatzea garapenerako lankidetzarekin lotuta.
- Garapenerako lankidetzak dituen onuren inguruko kontzientzia sortzea eta Europan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan elkarren arteko erantzukizun-, elkartasun- eta aukera-sentimendua bultzatzea gero eta globalizatuagoa den munduaren inguruan.

Horretarako, 2015. urtean, hainbat neurri bideratuko dute: komunikazio-kanpainak, hitzaldien antolaketa, ekitaldiak eta kide diren estatuetan egindako neurriak Europako Urtearen helburuak bultzatzera zuzenduta. Horretarako, garapenerako hezkuntza eta prestakuntzaren, esperientzien eta jardunbide egokien trukea egingo da. Ikerketak eta entseguak egitea bultzatzea eta emaitzak hedatzea ere aurrez ikusi dute.

*Informazio gehiago:*

<https://europa.eu/eyd2015/es>



### > Europako Batzordeak egoera ahulenean daudenentzako Laguntza Funts berriaren Programa Operatiboa onartu du

Europako Batzordeak Egoera Ahulenean daudenentzako Laguntzako Europako Funts (FEAD) berriaren Programa Operatiboa onartu du Espainiarako. Espainiak 563,4 milioi euro jasoko ditu 2014-2020 aldian behar handiena dutenentzako elikagaien oinarritzko hornikuntza gisa. Zenbateko hori, gainera, Estatuko iturrietatik iritsitako 99,4 milioi euroekin osatuko dute.

FEADen helburua pertsonei gizarte-bazterkeriatik eta txirotasunetik ateratzeko lehen urratsak ematen laguntzea da haien behar oinarritzkoenak beteta. Ezinbesteko baldintza da hori enplegua lortzeko edo prestakuntza-ikastaro batera joateko. Hori dela eta, Europako Gizarte Funtsarekin (EGIF) lotuta dago.

Kide den estatu bakoitzak zehaztuko du "egoera ahulenean dauden pertsonen" xede izango den taldea Estatuko Programa Operatiboaren baitan. Kide diren estatuak hauta dezakete zer laguntza mota eskaini nahi duten (elikagaiak edo oinarritzko ondasunak edo bien arteko konbinazioa), eta elikagaiak eta ondasunak banatzeko eredia haien egoeraren eta lehentasunen arabera.

Espainian, aurreko Egoera Ahulenean daudenentzako Janaria Banatzeko Europako Programaren (MDP) antzeko eran erabiliko da FEAD (2008 eta 2012 artean banatu zituen elikagaiak).

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=1089&langId=es>





## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Letoniak bere gain hartu du Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentetza

Urtarrilaren 1etik, Letoniak hartu du bere gain Europar Batasuneko Kontseiluaren txandakako presidentetza.

Letoniako Presidentetzaren programak oinarrizko hiru ardatz finkatu ditu: Europa lehiakorra lortzea, Europar Batasun digitalerantz aurrera egitea eta Europar Batasunak munduan betetzen duen rola indartzea.

Inbertsioa berriro aktibatzeaz gain, Letoniak oinarrizko lehen ardatzean sartu du langabeziaren aurkako borroka eta gai hauen inguruan arreta berezia jarriko duela adierazi du: enpleguen kalitatea, iraupen luzeko langabeziaren arazoa eta ezinduen lan-munduratzeari. Letoniako Presidentetzaren zati ekonomikoaren beste kapitulu bat izango da Japoniarekin, Vietnamekin eta AEBekin merkataritza askeko tratatuen amaiera.

Energia mailako batasuna bultzatzen ere saiatuko dira. Horren arabera, energia-independentzia sendotzeari garrantzi berezia emango diote energiaren barneko merkatuaren garapena osatzeko helburuarekin, eta energia-azpiegituren arazoei arreta emanda.

*Informazio gehiago:*

<https://eu2015.lv/>

[https://eu2015.lv/images/PRES\\_prog\\_2015\\_EN-final.pdf](https://eu2015.lv/images/PRES_prog_2015_EN-final.pdf)



### > I+G+b arloko Europako proiektuen inguruko Euskadiko Partaidetzaren Behatokia aurkeztu dute

2014-2020 I+G+b arloko Koaderno Estrategikoak jasotzen du I+G+b arloko nazioartekotzeari buruzko Euskadiko estrategia. Eusko Jaurlaritzak SPRIren eta Innobasqueren laguntzarekin egindako tresnak Euskadik Horizon 2020 Europako programak jasotzen dituen erronken aurrean betetzen duen postua erakusten du. Era berean, parte-hartzea bultzatzeko eskuragarri dauden zerbitzuak eta eragileak deskribatzen ditu eta, praktikan, programa berri horren aldaketak ulertzeko eta Euskadiren partaidetza bultzatzeko gidalerroa dela esan dezakegu.

Horren inguruan, eta enpresek eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskadiko Sareko eragileek nazioartean duten posizionamendu mailaren diagnostiko hobea izateko helburuarekin, I+G+b arloko Europako Proiektuen Euskadiko Partaidetzaren Behatokia aurkeztu dute.

I+G+b arloko Europako Proiektuen Euskadiko Partaidetzaren Behatokiak web-plataforma du eta nazioarteko funtsekin eta, zehazki, Europako Batzordearen I+G+b arloko laguntza-programekin finantzatutako sistemako eragile guztien (enpresak barne) partaidetza-proiektuak erregistratzen dituen zati pribatua du. Gainera, zati publikoa ere badu. Bertan, aldian-aldian, informazio eguneratua eskainiko da eta bertan kontsultatu ahal izango dira Euskadiko eragileek I+G+b arloko Europako programetan izandako partaidetza orokorreko datuak.

*Informazio gehiago:*

<http://observatorio.innobasque.com/index.php?lang=eu>



### > **Batzordeak Inbertsio Estrategikoen Europako Funtsari buruzko legegintzako proposamena aurkeztu du**

Europako Batzordeak Inbertsio Estrategikoen Europako Funtsari (FEIE) buruzko legegintzako proposamena onartu du. Mekanismo horren helburua hazkundea eta enplegua bultzatzea dira. Funts horrek gutxienez 315.000 milioi euro mobilizatuko ditu inbertsio osagarrietan hurrengo hiru urteotan eta arrisku-profil handieneko proiektuak finantzatzeko ditu. Horri esker, gastu publikoaren inpaktua maximizatu eta inbertsio pribatua askatuko du.

Inbertsio Estrategikoen Europako Funtsak hainbat tresna esanguratsu biltzen du: Inbertsiorako Aholkularitzako Europako Zentroa (proiektuak aukeratzeko, prestatzeko, garatzeko eta finantzatzeko laguntzeko eta aholkularitza emateko Europa mailako leihatila bakar bihurtzeko xedea duena); proiektuen Europako erreserba gardena, gaur egungo eta etorkizuneko inbertsiogileentzat baliagarria izango litzatekeena; eta Europar Batasuneko Berme Funtza (Batasuneko aurrekontuari likidezia emango lioke funtsak arrisku handieneko proiektuei babesa ematean jasan ditzakeen galeren aurrean).

Inbertsio Estrategikoen Europako Funtza Inbertsioen Europako Bankuaren baitan sortuko litzateke eta Batzordeak bazkide estrategiko gisa lan egingo luke harekin. Dena den, Batzordeak aurkeztutako legegintzako proposamena onartu eta abian jarri ahal izateko ekimena Europako Parlamentuak eta Batzordeak aldi berean onartu beharko dute.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-15-3222\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-15-3222_es.htm)



### DOKUMENTU INTERESGARRIAK

#### > Erabilgarria izan al da EGEFek ETE-*ei* merkataritza elektronikoen arloan emandako laguntza? (Kontuen Epaitegia)

Europako Kontuen Epaitegiaren ustez, kide diren estatu*etako* programa operatiboak oinarri ona izan dira merkataritza elektronikoen arloan ETE-*ei* laguntzeko, baina ez emaitzak neurtzeko.

Ateratako ondorioen arabera, programen kudeatzaileak gehiago oinarritu dira dirua erabiltzen hautaketako eta gainbegiraketako faseetan emaitzak lortzen baino. Oro har, babestutako ETE-ek proiektuak arazorik gabe gauzatu dituzte, baina beti ez dira bistakoak lortutako emaitzak.

*Informazio gehiago:*

[http://www.eca.europa.eu/Lists/ECADocuments/SR14\\_20/SR14\\_20\\_EN.pdf](http://www.eca.europa.eu/Lists/ECADocuments/SR14_20/SR14_20_EN.pdf)